

## Ikastola dago jokuan

**IKASTOLAK,** Herri honetako gizartearen ekimen bat izan dira.

Demostratu dugu gure eskola eraikitzeke gai izan garea eta sorreratik publikoak izan bagara, gure eguneroko praktikan argi geratu da gure bokazioa, alde batetik gure patrimonio guztiaren jabegoa herriaren ordezkaritza zuzena duen erakundeari pasatu diogu, hau da Udaletxeari, eta bestetik gure ikastola herrian euskaraz hezi nahi izan duen guztiari ireki ta egon da eta dago, inor alboratu gabe, lekuko, Arrasateko auzo guztietan dugun presentzia.

Gu herrian finkatzen joan garen neurrian eta gure nortasuna indartuz joan den heinean, gizarteak eta bertan kokaturik zeuden eskola ereduak aldatzen joan dira.

Ikastolen mugimenduak piztutako zuziriari esker eta paraleloki, guraso eta irakasle talde bat hasi ziren Eskola Transferituetako sarean, lan egiten eta sare hau euskalduntzeko asmoz.

Gaur egun dugun Eskola transferitua, jende multzo honi esker euskalduntzen joan da, Administrazioak eta Legeak atzetik joan dira.

Egun, Estadu mailan LOGSE sartu da indarrean eta bakar bakarrik Euskal Herrian, ez da posible honen aplikapen zuzena, hiru eskola sare desberdin daudelako, Transferituak, Pribatuak eta Ikastolak. Hemen, eta Ikastola egoera 'normalizatzeke' Euskal Eskola Publikoaren legea egin dute.

Baina guk, lehen esan dugun bezala, ez Administrazioarenak, baina bai publikoak gara, eta egiten duguten eskeintzan ez dugu tokirik, orain dugun nortasuna eta izaera mantenduz behintzat.

Lehenik eta behin eta Administrazioaren aldetik, borondate onaren lehen urratsa, ikastolak dugun iharduera kontutan hartzea izango litzateke, hainbat eta hainbat herritarrek egin duten aukera izanik, eta egindako bidea ez kontutan hartzea eta trabak jartzeak erakusten digu zein asmo duten. Lege honen atzean, Ikastolen mugimendua desagertaraztea ikusten dugu helburu nagusi bezala.

Herri batek duen eskolak, gizarte konkretu baterako prestakuntza emateko sortuak dira eta ez du balio, gure kasuan, lehendik dagoen estruktura euskalduntzea, estruktura bera baldin badao herri honen interesen aurka. Saiatu behar gara estruktura bera aldatzen, gure herriko interesei eusteko.

Lege hauek aztertu ondoren pentsatzen dugu ez dutela bermatzen gure hezkuntz proiektuko bi ardatz nagusi, *euskalduntze arloan, gaur guk duguna baino atzerago gelditzen da eta autonomia mailan, ezer garrantzitsurik erabakitzeke aukerak galtzen ditugu.*

Hemendik, eta Federazioari begira honako eskaera hau luzatuko genioke.

Lortu duguna ez da inolako helmuga, ez dezagun pentsa lortutakoa nahiko denik.

Helburua, Euskal Eskola Berria eraikitzen joatea da eta horretarako helburu berdinekin lanean ari diren beste eskolekin elkarlanean hasteko bideak aurkitu eta bultzatu beharko ditu, lortu nahi dugun Eskola berria denon lankidetzaren fruitu eta bilgune izango bait da.

Baita ere eta Irakaslegoarentzat erreflexio pare bat egitea bidezkoa ikusten dugu.

a) Funtzionariadoaren 'karamelo' aztertu dezagun, ez dezagun pentsa eskaintzen diz-

kiguten pribilegio hoiek ezere truke direnik. Funtzionariadoa, historikoki beharturik egon da boterearen ondoan posizionatzera eta eskola ez da inoiz eta inon apolitikoa eta inpartziala izan.

Gorputz dozenteen lege honek horrexegatik eskaintzen digu bide bakar hori, azken finean kontratu laboralek, extingitzera bideratu bait ditu.

Ematen diguten lansari haundiagoaz eta finkotasunaz, Administrazioak langilegoa erabiltzen ahal du, bere helburuak transmititzeko eta ongi lotuak eduki ahal izateko.

b) Beti goikoei erruak botatzea oso erraza da eta hau egiten dugunean, goitik beherako antolakuntza bat onartzen ari gara eta honek ez gaitu inora eramaten.

Gauden tokian, jarrera aktibo bat hartu eta gure asmoak gauzatzeko ditugun aukerak erabili behar ditugu, horrela benetan nahi dugun Eskola Berria eraikitzen joango garelarik.

Bakoitza gauden tokitik, denon indarrak batzeko garaia da. Beraz, kontutan har dezagun gure botua ematerakoan *Ikastola dagoela jokuan* eta orain arte bezalako statusa mantenduz eta *Ikastola guztiak denok batera jokatuz* lortu dezakegula gure proiektuak aurrera egitea.

Ikastola defenda dezagun, Euskal Eskola Berriaren oinarri bezala.

### HIRUNE IRIBECAMPOS

#### GALLASTEGI

S. FRANTZISKO XABIER IKASTOLAKO IRAKASLEA

## I'm Basque separatist and proud of it

1960 hamarkadaren hasieran Eli Gallastegik, Txillardegiri egindako eskuiztatetako batetan, honela epekatu zuen abertzaletasunaren aroa:

«Lehen epea: 1882an hasieratik (Arana-Goiri anaiek, etxen, ospatu zuten lehen Aberri Eguna kutun eta konfidentziala, aberriari buruz eztabaidatuz) 1932 urterarte, anaia horiei omenaldia eginez Sabin Etxean lehen Aberri Eguna hura herriak baieztatu zuzenean.

«Bigarren epea: Data horretatik, edo are zehatzago nahi bada, 1931tik, Monarkia erortzen zelarik Errepublikak ezartzen zenean, estatutismoaren best urteetatik, gerlatik, eta gerraostetik pasatuz.

«Hirugarren epea: Atzo hasi zena». Antzeko epealdiak egin daitezke gaur egun ere. Izan ere, hiru epe nagusi bereiz daitezke euskal abertzaletasunean:

Lehena 1895etik, EAJ tresna politiko bezala sortu zenetik, 1937 urterarte, Gallastegi atzerrira joan zenerarte hain zuzen ere. EAJ eta, geroxeago, *Jagi-Jagi*, azken hau batez ere, izango dira independentziarako erreferentziak.

Bigarrena 1959tik (*Ekinetako* hasita) 1989 urterarte doana, hau da, sozialismoaren porrot galant eta itzulezinezkoaren mugarrirarte doana. Abertzaletasuna eta arazo soziala bateratu nahirik, erreferentzia bakarra ENAM delakoa delarik.

Hirugarrena: «Atzo hasi zena». Izan ere, epe berri batetan bizi gara, non ohizko eskematxoak (hirugarren internazionaletik datozenak: masa, abangoardia, alderdi zuzentzailea, eta abar luzetxo) pikutara joan diren. Egin du hala ohizko marxismo leninismoarenak nola maoismoarenak.

Hasiberria den epe honetan, teorien eta erreminta kontzeptualen hutsune honetan, askotxo ohizko eskematxoak eusten dieten bitartean (askotan hizkera esoterikoak —Lacan, psikoanalisi eta antzeko zabokeriaz— jantzita), beste zenbaitzu teoria berrien bila abiatu gara.

Dagoeneko zenbait gauza argi eta garbi geratu dira: alde batetik, aspaldian aldarrikaturiko sozialismoa nonnahi Estatu kapitalismo atzeratua bestetik ez dela izan. Bestetik, abangoardismoaren eta zentralismoaren porrot galanta.

Ohizko kontrolatzaileak, inertziak edo kontrolari berari gogor heltzen diotelarik, noraezan dabilzan artean, zenbaitzuk badakigu, jakin, Estatuak eta kapitalak jarri duguten sistema honetatik askatu, *separatu* beharra dagoela. Autobalorapenaren bitartez, autoantolaketa bidez, gizabanakoak, taldeak, eta herri garen aldetik, separatu beharra daukagu.

Dagoenetik, *status quo* delakotik separazioa, banatzea, da gaur egungo estrategia be-

ria. Separatze horretarako, kontzeptu herriak, teoria herriak, erreminta kontzeptual berriak halabeharrezkoak dira.

Abia gaitzen, hortaz, ildo berrietatik kontserbadoreak (ohizko eskuin eta ezkerrekoak) beraien paradisu partikularretan lagata. Etorkizuna «atzo hasi zen». Zentzu honetan pozik egon gaitzake. Jadanik ez gaitu kezkatu behar ezelako abangoardiak, inolako alderdi zuzentzailek, zeren beroriek, betiko, hilik baitaude.

Askatasunezko espazio berriak sortu, erai-ki behar dira. Zapaltzen gaituzten Estatuetik eta kapitaletik askatu, separatu beharra daukagu. Ameriketako indioek oihukatzen duten antzera. «*I'm Basque separatist and proud of it* izan liteke *lingua franca* berriaren gure lema bakarra.

'Beste' politika mota bat behar da, 'beste' erakunde mota batzu beharrezko dira, 'beste' ekonomia mota baten beharra dago. Beste jende askorekin batera, 'bestetasun' hori defenitzen eta delinatzen arituko gara hemendik aitzina. Bienbitartean, Gallastegik eta ENAMekoek eman dituzten emaitzarik emankorrenak eta oparoenak gore eta zain ditzagun.

### JOSEBA TOBAR-ARBULU

INGENIARIA

## BERRIAKZIRI



**JOSE MANUEL MATA**  
Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktorea ARGIA

«Agian % 100ek

botoa emango balu demokrazia apurtuko litzateke»



**TEO URIARTE**  
PSE-Eeko kidea DEIA

«Nazioaz hitz egiten

dudanean, Espainiaz ari naiz»



**FELIPE GONZALEZ**  
Espainiako gobernuburua EL DIARIO VASCO

«Oraingoz, EAEn

EAJrekin batera gobernatzea posible dela egiaztatu egin dugu»



**RAIMON**  
Kataluniar kantaria LA VANGUARDIA

«Eleanitza den eta

horren berri badakien Estatu bateko hedabide publikoetan, ez da bidezkoa dena hizkuntza bakar batean egitea Estatu horretako biztanleen zati bat baztertuta dagoen sentsazioa izan baitezake»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

